

MANU GOIOGANAK JARRITAKO BERTSOAK

SEI HILABETETIK BEHIN
EZTABAIDA BERA
HAU EZ BAITA MUGATZEN
SOILIK ALARDERA...
EZ ONARTZEKO BEZAIN
FALTSUAK BAGERA
ELKARREKIN EZINGO
GARA JOAN AURRERA

ESPARTINAK EZ DIRA
OINUTSIK IBILTZEN
TA GENEROZ EZ DUTE
ASKO ENTENDITZEN.
JAIZKIBELPEA SEGI
DEZAGUN BERDINTZEN
IKUSI EZINARI
MUSIKA IPINTZEN!!!

IRAILAREN 8A, HONDARRIBIAN

Hamazazpigarrenez, Jaizkibel konpainiako neska-mutil eta andre-gizonek Hondarribiko Alde Zaharreko kaleak zeharkatuko dituzte hilaren 8an txilibitua entzunaraziz, txapela gorria buruan. Alarde parekidearen aldeko borrokak luze dira, eta bidean makina bat oztopo gainditu behar izan ditu konpainiak. Urrunegi joan gabe, 2011n ohiko ibilbidetik desfilatzea galarazi zien Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, eta ia berarekin berreskuratu zuten arren, pankarta beltzez inguratutik eta "Betiko alardea!" oihu artean ibili ziren beste behin ere 350 kideak. Hori bai, partalde kopuruak gora egin du urtez urte, eta herritarren babesa ere berotzen joan da pixkanaka. Urratsez urrats, aurrera.